



PRENTSA-OHARRA

Bihar, asteazkenarekin, *IrriZiklo*ko aste honetako umore-saioa, Beatriz Egizabal eta Ane Labakaren bertso eta monologoekin, *Erradikalak gara* ikuskizunean

Astlehenean, hilak 19, *Biba Voi!* (Darío Fo eta Franca Rameren antzerkia) taularatuko du Tartean Teatroa konpainiak, elurtea zela medio emanaldi-eguna atzeratu baitzen

“Erradikalak garela esaten digute; gure ustez, nahi eta behar baino gutxiago.” Horra *IrriZiklo*ak aste honetarako dakarkigun umorezko antzezlanaren abiapuntua, zeina bihar, martxoaren 14an, asteazkenarekin, taularatuko baitute, Nafarroako Antzerki Eskolan, Ane Labakak eta Beatriz Egizabalek. Kontraesanez beteriko “maletak” dituzten bi emakume agertuko dira, maleta horiek ikusleen aurrean irekitzeko prest, eta errailetatik hitz egingo dute, umorez, sustrairaino heldu nahian.

Erradikalak gara antzezlanean Beatriz Egizabalen monologoak eta Ane Labakaren bertsoak tartekatzen dira, eta horrela jorratuko dituzte feminismoaren erronkarik garrantzitsuenak eta joera zein iritzi desberdinak, desadostasun handienak eragiten dituztenak barne. Amatasuna, dibertsitatea, indarkeria eta sexualitatea landuko dituzte, besteak beste, betiere umorea baliatuta, eta ikusleengan eragin eta hausnarketa pizteko asmoz. Sarrerak hiru euro balio du.

Lanean genero-ikuspegitik jarduten diren bertsolaria eta narratzailea

Ane Labaka Mayoz (Lasarte-Oria) bertsolaria da, itzultzailea, hezitzailea eta bertsolaritza-irakaslea Lasarte, Urnieta eta Donostiako bertso-eskoletan. Bertsolaritzan 12 urte zituela hasi zen, Asteasuko (Gipuzkoa) bertso-eskolan, eta berehala gailendu zen eskolen arteko txapelketetan: txapeldunorde izan zen, bi aldiz, eskolen arteko txapelketa nagusian (2006an eta 2009an) eta txapeldun, 2008an, Gipuzkoako eskolen artekoan. Hainbat sari jaso ditu bertsolaritza-txapelketetan, hala idatzietan nola ahozko bat batekoetan (Osinalde, Lizardi, Basarri, Lazkao-txiki...). Horrez gain, bitan jaso du bertsolaritzaren inguruko ikerketa-saria, EHUko Mikel Laboa Katedrak eta Mintzola lantegiak deitutako deialdian. Bi proiektu horietan, hain zuzen, bertsolaritzari heltzen dio genero-ikuspegitik.

Beatriz Egizabal (Lasarte-Oria, Gipuzkoa) ipuin-kontalaria eta klowna da. 1998an hasi zen kontalari-lanetan, ikusle guztiei –haurrak, gazteak, helduak– zuzendutako emanaldietan.

1. orrialdea, (e)tik 3





Emakumearen ikuspuntua erabili ohi du ipuinak kontatzean, ikuspuntu feminista, halaber behar eguneratu behar diren estereotipoak iraultzeko asmoz. Literaturari buruzko ikastaroak ere ematen ditu, institutuetan batez ere, gurasoei zein irakasleei zuzenduak. Oihulari Klown konpainian aritu zen, eta 2005ean, Cesar Marcos marrazkilariarekin batera, KontuKantoi konpainia sortu zuen, zeinaren ikuskizunek hitza eta irudia uztartzen baitituzte. Hori horrela, Egizabalek ipuinak kontatzen dituen bitartea Marcosek hitz horiek marrazki bihurtzen ditu, hitzak entzun eta berehala. Bikoteak, gainera, bat-bateko klown ikuskizunak inprobisatzen ditu.

Ikuskizunak martxoaren 19an, 21ean eta 27an

*IrriZiklo*ren hurrengo emanaldia martxoaren 19an, astelehenarekin, izango da, otsailaren 28ko elurteen ondorioz emanaldia atzeratu behar izan zen eta. Tartean Teatroa konpainiak *Biba Voi!* (Darío Fo eta Franca Rameren antzerkia) taularatuko du. Antzezlanak testu azkar eta ziztatzaileak ditu –*Mistero buffo*, *Morte accidentale di un anarchico*, *Adan eta Eva*, besteak beste–, zeinek egileen filosofia, ideologia eta bizimodua transmititzen baitituzte, betiere umorea baliatuta. Mikel Martinez eta Irati Agirreazkuenaga izango dira protagonistak.

Martxoaren 21ean, asteazkenarekin, saio bikoitza izango da. Itziar Saenz de Ojer pedagogo, sexologo, hezitzaile eta aktorea igoko da taula gainera lehenengo, *Sexijentziak askatuz* saioarekin. Zirika Zirkuseko Ainhoa Juanizek hartuko du gero lekukoa, Pantxika Lamur hezurmamituz *Nik egin beharko & ko* antzeztuko duelarik.

*IrriZiklo*a martxoaren 27an amaituko da, asteartearekin, Txalo Produksioak konpainiaren *Etxeko saltsak* lanarekin, Alan Ayckbournen *Relatively speaking* antzezlanean oinarritutako endredozko komedia. Taula gainean, Aitziber Garmendia, Ane Gabarain, Miren Gojenola, Mikel Laskurain eta Aitor Fernandino.

IRRIZIKLO 2018. NAFARROAKO ANTZERKI ESKOLA. 20:00

- **Martxoak 14, asteazkena**
- *Erradikalak gara*. Beatriz Egizabal eta Ane Labaka. Lanku
- **Martxoak 19, astelehena**
- *Biba Voi!* (Darío Fo eta Franca Rameren antzerkia). Mikel Martinez eta Irati Agirreazkuenaga. Tartean Teatroa
- **Martxoak 21, asteazkena**
- *Sexijentziak askatuz*. Itziar Saenz de Ojer
- *Pantxika Lamur. Nik egin beharko & Ko*. Ainhoa Juaniz. Zirika Zirkus
- **Martxoak 27, asteartea** Nafarroako Antzerki Eskola. 20:00
- *Etxeko saltsak*. Txalo Produksioak. Testuaren egilea: Alan Ayckbourn.



Iruñean, 2018ko martxoaren 13an

